

balaike

2002ko AZAROA,
105. ZENB. DOHAINIK



Txapeldunak

ZESTA-PUNTAKO ESKOLARI
BURUZ HITZ EGITEN

Narrondo auzoa

Baztertutako auzoa

Zumaia eta Zestoa artean banatuta dagoen auzoko
egoera kezagarriaren berri eman digute bertakoek

txotx!

baleike



Bero-beroa dator azaroko Baleike. Oso beroa!! *Jardunian Joseba Egaña* meteorologoarekin aritu gara, eta berak esan digunez, udazkenean hego haize giroa izatea normala da. Baliteke zenbaki honen berotasuna eguraldiगतिक izatea. Lasai egon zaitez, hortaz!!

Giro epelari ihes egiteko *ur haunditan* sartzea aproposa izan zitekeen, baina hilabete honetako gaiarekin hoztu baino gehiago berotzeko arrisku latza dago. **Narrondoko arazoak**, izan ere, berotuta eta ia kiskalita dauzka bertakoak. Eta ez da gutxiagorako.

Garai honetan txerriak ere berotu egiten dira. Heriotzari ihes egin nahian batera eta bestera jotzen dute. Baina alferrik!! Jakina da **San Martin** bueltan izaten dela txerri askoren hiltzeko garaia. *Zarak berr* atalean **orain dela urte asko nola hiltzen zituzten** azalduko dizugu.



Munduko Txapelketa irabazteko *izerdi patsetan* jartzearainoko beroaldi latza hartu zuten **Iñaki Osa Goikoetxeak eta Gotzon Enbilek**. Txirrindularitzako Munduko Txapelketak Belgikan izan ziren. Paraje haietan bero handirik ez du egiten, baina **Iban Iriondo txirrindulari zumaiarra** bero-bero eginda ibili zen. Berak idatzitakoa irakurri beharko duzu zergatiak ezagutzeko.

Olarro zopa ere bero xamarra dator oraingoan. Jateak berotu egiten gaitu, eta Beñaten **ahateak** zer esanik ez!! Agian Izaga haserretu egingo zaigunez, tarte txiki bat laga diogu **dietetikari** buruz idazteko. Bazkalondoko

giroa berotzeko asmoz **bertso zahar**rak ere badauzkagu. Bazkari konpletua, bertso eta guzti!!

Jesus, Maria eta Jose!! Hau da beroa hau!! Gauzak bere onera etortzeko beste atal batzuk irakurri beharko dituzu. Hozte aldera edo!! *Trinidad*e santuan bi pertsonaia berri aurkituko dituzu. Freskotasuna, beraz.

Ze aituan gazte jendea ekarri dugu. **Jousilouli** taldekoei elkarrizketa egin diegu, orain egun batzuk disko berria atera dutela eta.

Hauxe duzu gutxi gorabehera azaroko Baleike. Zehatz-mehatz nolakoa den jakiteko, irakurri!! Baina kontuz, ez gehiegi berotu!!

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faksa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzardea

Esther Etxeberría
Xabier Azkue

Erredakzio batzardea

Ibon Manterola
Eneko Dorransoro
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola

Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorransoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Xabier Aranguren, Jon Maia, Esti Esteibar, Dani Carballo, Inaxio Tolosa, Belen Golmaio, Izaga Garzia, Koldo Landaluze, Beñat

Fernandez de Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Egoitz Lizaso, Garikoitz Tellería, Natur Taldea

Argazkiak

Eva Franco eta Baleike.

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Azaleko irudia

Eva Franco

Baleike ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



Gogoetarako tartea

Aspaldian pentsatzea ere debekatuta dagoela dirudi. Aznartu daiteke, hausnartu ez. Hona esaldi edo zita batzuk buruko giharrak esnarazteko.

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenez ikasten ez dutelako, dakitenez hitz egiten ez dutelako baizik."

Josan Artze

Gizabanakoen artean, nazioen artean bezala, besteren esku-bideari begirunea da bakea.

Benito Juarez

Itzala eman nahi duenak argia hartu behar du.

Gabriel Aresti

Maite genituen gauzengatik erori ginen preso, baina gure maitasuna ez dago preso oraindik.

Joseba Sarrionandia

Hipokrisiaren erresuman ez dago lekuri errugabeentzat.

Negu Gorriak

Dabilan harriari ez zaika goroldiorik lotzen.

Axular

Lehenaldia kontrolatzen duenak orainaldia kontrolatuko du. Orainaldia kontrolatzen duenak etorkizuna kontrolatuko du.

Kortatu

Euskararik gabeko Euskal Herria?

ASPALDIAN KEZKA handi bat dabilkit lepo gainean jira eta bira. Euskararekin du zerikusia. Kezka denek bezala, honek ere galdera asko sorrarazten dizkit. Bat hauxe: ez al gara euskararik gabeko Euskal Herria eraikitzen ari? Norbaitek esango du astakeria galanta dela, baina ez dakit. Orain egun batzuk entzundako albiste batek berriz gogora ekarri dit aipatutako kezka hori. Albisteak honela zioen: "Radio Euskadi da, lehen aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoan (eta ez Euskadin edo Euskal Herrian, batzuek dioten bezala) gehien entzuten den irrati-katea. Pozteko albiste da, eskerak eman behar dizkiegu gure entzulei, bla-bla-bla..." Erdara hutsean aritzen den irrati-kateak gora egin duela eta denak gustura, algara bizian eta kantari (gaztelaniaz suposatzen dut). Ba ni ez nau poztu. Abertzaleak diren Deia eta Gara egunkarien irakurle kopuruak gora egiten duenean pozten ez naizen bezala. Medio horiek denak abertzaleak izanik, erdal hizkuntzak hautatu dituzte euskararen kaltetan (orain hirurogei urte Aitzolek egin zuen bezala, Lizardiren euskarazko egunkaria egiteko asmoen kaltetan). Badakit aukera hori egitearen arrazoia ahalik eta jende gehienak irakurri eta entzuteko aukera izatea dela. Garbi esanda, abertzaleen mezua zabaldu eta hedatzea. Erdaraz, ordea. Eta nire ustez, erdal hizkuntzak loditu ahala, gurea den euskara argaldu eta eskatu egiten da. Euskal Herriaren eraikuntzara ahalik eta jende gehien erakartzea bidezkoa deritzot, baina Euskal Herriaren ezaugarri nagusia den euskara baztertzea ez dut ondo ikusten. Horregatik nire galdera. Ez al gara euskararik gabeko Euskal Herria eraikitzen ari? Xalbador bertsolari bikainak ederki azaldu zuen. Herria da gorputza eta hizkuntza bihotza. Herria handitzeko bihotza ahultzea ezinbestekoa al da? Bihotzik gabeko gorputza ez da ezer. Euskararik gabeko Euskal Herria ere ez.



Aitor Manterola Garate

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

Paelak lapikoari ipurbeltz!



Josefran Ispizua

NIK BURU karratua eta egoskorra izan nahi nuke, betiko zalan-tzarik gabe. Fededun itsuak bezala, nahiago nuke neure burua kritiko sentitu behar izango ez banu, gauza guztiei beti punta atera behar izate horrek satisfazioak baino burukomin gehiago ematen baitizkit. Oraindik itxiagoa eta motzagoa izatea ere ez litzateke txarra, izan ere, adibidez musika latinoa horren aberatsa eta zabala izanda zertako hasi bestelakoez kezkatzen. Gainera, bere alderdi txar guztiekin non hemen baino hobeto?

Noblea, langilea, ona, fina, tonto samarra eta bere hizkuntza txakurrekin eta umeekin egiten konformatzen dena baino erre-txindunagoa eta beti ere "jesuita" izan nahi nuke eta gure zahar-rak bezala Rh autentikoa duena, azken finean Biblian baitator Dabidek Goliati harria bota zionekoa. Emakumeez bezala gida-tzeko txolina, eta errespeturik gabea ere nahi nuke, inkontziente-ki kalean poltsa hutsak eta paperak botatzen dituenak bezala, edo-zein tokitan "Perdón ¿Qué dice?" esan eta neurea lasai exijitzeko.

Insolidarioa ere bai, etorkin zikin eta alfer horiei guztiei hemen botoa ematen ez uzteko; eta chauvi-nista politikoki okerra: "Yes, Lennin-grad (¡Perdón. San Petersburgo!) is beautiful, like San Sebastián (?)". Beti kontra egiten duena eta intolerantea, jakina, izan ere penagarria da erdaraz ez dakiten haur inkonstituzional horien etorkizuna. Eta baita harroxko eta txotxoloa ere, beti "gu", "gure" eta "hemengo" esan beharrik ere ez izateko.

Tira, zerrenda luzea da, baina feministak bezain zatarra ere izan nahi nuke, eta gorri-gorria, adartxoak eta buztana luzeduna, tridentea eta guzti, beti zilbor ederrari begira. Oraingoz, ordea, etsi-etsian ironikoa izatearekin pozik geratuko naiz, dugun primi-tiboaren konplexua gainditzeko ariketa ona eta polita baita erda-raz bezala, dena alderantziz esatea.

DANI



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861589



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Bueltan naiz berriz ere



Eneko Dorronsoro

Baratzuriak haina oraindik errepikatuko ez detenaren esperantza badut. Baina hori, esperantza. Hala izaten da, batzuk esperoan, eta besteak zain zeudena iritsita. Trinidadeko taldean

aurkezteko geratzen zaigun seigarren laguna egoera hontan da, eta hainbeste espero izandakoaz disfrutatzeke asti pixka bat eman beharko diogu ba. Zorionak aita.

Paristik hura ere. Paristik datorren artista bezala, Paristik etortzen omen dira zikoinaren mokotik zintzilik jaioberriak. Zer joko ote du zuenak? "Txindata txindata", edo "tanborra nik jotzen det" agjan. Adarra jotzen ere ikas lezake.

Horixe bada esperantza. Zer egingo duenarena, zer izango denarena.

Eta gu amestera ohituak. Esperantzak nahiekin, norberaren gogoeikin nahastu, horra hor problema. Ez det imaginatu ere egin nahi futbolista ez litzatekeen alabarik, edo modelo izatera iritsiko ez den seme bat (edo alderantziz?). Beno, zestapuntan mundiala irabaziko balu barkatuko nioke.

Nik modelotik gutxi, eta futboleant eskas. Baina nire garaian txindata jotakoa naiz, harro izateko moduan dira gurasoak beraz. Eta zuk, zer dakizu zuk jotzen, Karmelo?

Nike.. Nike.. Joko Nikek !!

Karmelo Arroiabe



Ba ni, eta Musikaren onerako, gazte gaztetatik, eskolako abesbatza osatzeko aurkeztu nintzenean, ahoa zabaldu baino lehen, kanpoan utzi ninduten. Baina hala ere eta nire kemenari esker, meزامutil tituloa lortu nian eta horrela, bizitzan jo deten

musika instrumentu bakarra jotzea: kanpaitxo edo txilina. Hori bai, maisuki jo ere. Igandetako mezetan, lau kanpaitxo batera lotuak zituen txilinarekin eta apaizak besoak gora luzatzeko une berean, xiltasun absolutoan, nik, eskuin besoa beheruntz tinko luzaturik eta milimetrorik mugitu gabe, eskumuturraren joko mirakulutsuarekin, soinu zerutiarrak lortzen nizkian, mezaren klimaxa alegia.

Geroago, jautsi kualitatiboa egiteko garaian, beste gauza batzuk jotzeko garaian, pazifista utsa; egoera eta pentsakera politikoak zeharo bestelakoak izan arren. Behin, Parisen, neska batek esaten zidan euskeraz erabiltzen ziren, larrua jo eta kanpaia jo hitzak desagokiak zirela adierazi nahi zutena adierazteko. Lehena, gogorregia, grafikoegia, sentimendu eta poesiarik gabekoa; eta bigarrena berriz, eliz kutsukoa. Berak, frantzesaren eraginez noski, "amodioa egin" hitza egokiagotzak zian. Behar bada arrazoi pixka bat izango dik, baina neri asken hitz hau ere ez zaidak gehiegi gustatzen.

Beharbada, Hernaniko Mata-Harik, gai hauetan adituagoa noski, hitz egokiagoren bat ezagutzen dik. Hala al da Ixiar?

Alaba da, eta hala bedi... zorionak, aitatxo!

Ixiar Eizagirre



Zikoina leiho ertzerat etorri zaizun honetan, Pariseko nostalgia sartu zaizu nonbait... Bada, Hernaniko Mata-Hari ez da sekula Eiffel dorrean izan, eta igual horregatik ez dakit apreziatzen "amodioa egin" espresioea; arkitektoen lana dela ematen baitu, "eraiki dezagun amodioa" esatea bezalako zerbait. Beste hitzen bat asmatu behar bazaio, kasik bakoitzak asma dezala berea (norberak jakingo du-eta zertan aritzen den...). Jo dezagun: Yogourtaren belaunaldikook "Actimela melatzea" deitu geniezaioke, baina teknologiaren kumeak dira gaurkoak, eta "xagua klikatu" edo "intro-escapeatu" bezalakoak nahiago dituzte. Ejekutibo, banketxe zuzendari eta abokatuentzat, oheko tratua ere "firma botatzea" da. Intelektual ustekoentzat, berriz, "buruari

eragitea", edo "gogo jarduna". Posia sariketarik irabazi nahi duenak "lubakietako amaraunak urratzea" deitu behar lioke derrigor. Neurriak ez omen du axola, baina milaka metroko luzeraren aurrean aho-zabalik geratzen direnek, "Kilimanjaroren gailur konkista" da praktikatzen dutena. Puntako sukaldaritza gozatzen dakitenentzat, "zizka-mizkatzea" da sexu gosea asetzea; jardun luzeko atletentzat "maratoia korritzea", bizkorrentzat "esprina jotzea", gerri kirolarientzat "txinga apustua", zumaiarrentzat "arraanean egitea" eta hernaniarrentzat "ziritik edatea" da kirol nazionala... Igual terminologia baino, benetan kezkatzekoa dena da, sexu kontutan euskaldunok hitzetan galtzen dugula denbora, eta ez zerako zera zeratzen, zea!

Perretxiko artean

Urriko azken asteburuan perretxiko ugari izan zen Zumaian. Natur Taldeak antolatu eta Inda Mendik lagunduta, urtero bezala perretxikoei buruzko jardunaldiak izan ziren.

Denetik antolatu zuten: hitzaldia, dastaketa, bilaketa eta erakusketa. Ostiralean Aitor Leitzak perretxikoei buruzko hitzaldia eman zuen. Beraien itxuraren arabera sailkapena egin zuen. Hitzaldiak iraun zuen bitartean egindako gosea asetzera joan ziren gero. Eta nola ez, perretxikoak jan zituzten. Inda Mendin izan zen dastaketa hori.

Larunbata bilaketarako eguna izan zen. Ekosistema gehienak arakatzea zen helburua. Eta ekosistemak ez zik, hamaika bazter ezberdinetan ere begiratu zuten. Esaterako, lagun talde bat Frantzia alderaino joan zen, Landeetaraino. Kontua da, orain bi urte zumaiarrek han aurkitu zutela ordura arte inork aurkitu ez zuen perretxiko mota. Bataiatu ere bataiatu zuten: Agaricus Laskibarii. Bada, aurren ere aurkitu dute, toki berean, Osegor inguruan. Ez gara makalak zumaiarrok!! Hori bai, bilatu arren oso perretxiko gutxi aurkitu zuten bilaketan aritu zirenek eguraldi lehorragatik.

Herri-eskolakoak ere aritu ziren aste barruan bilaketa lanetan. Inaxio Manterola "Manta" irakaslea buru zutela, Artadin, Santiyon eta beste leku askotan ibili ziren perretxiko bila.

Igandean izan zen erakusketa. Perretxikoak modelo lanetan jarri, eta ikusgai izan ziren pilotalekuan.

Natur Taldekoak gustura daude jardunaldi hauek izandako harrerarekin. Beraz, datorren urtean ere izango dugu antzeko zerbait.

Bestalde, Natur Taldekoek adierazi digutenez, etorkizunean egingo dituzten ekin-tzak antolatzeko bilerak laster egingo dituzte. Nahi duena joan daitekeela esan digute. Beraz, badakizue, nahi izanez gero azaldu, Natur Taldean ere, beste toki askotan bezala, jendea ez dagoelako soberan.

Bildutako perretxikoak ikusteko aukera izan zen.



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunak: 8:30 - 10

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskainet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694



Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073



Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaia



ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543

Minbiziari buruzko hitzaldia Gizarte Zentroan



URRIAREN 29AN Gizarte Zentroan bularreko minbiziaren hautemate goiztiarri buruzko hitzaldia izan zen Mitxelena sendagilea eta Katxalin elkarteko ordezkari baten eskutik.

Gaur egungo gaixotasun sarrienetariko eta garrantzitsuenetariko bat dugu minbizia, eta zehazki zelula baten ezohizko hastea da. Gizartean oso zabaldurik dago, eta askotan hitza entzuteak beldurra ematen badigu ere, sendatu daitekeela egiaztaturik dago.

Bularretako minbiziari dagokionez, emakume guztiengan du eragina. 20 eta 50 urte dituztenen artean azal daiteke, nahiz eta kasu gehien 40-50 urteen bitartean dauden emakumeengan izaten diren. Arriskua adinean aurrera doazenetan handitzen da, baina helduengan ez da horren oldarkorra. Euskal Herrian bederatziehun kasu antzematen dira urtean.

Minbizia sortzeko badaude arrisku faktore batzuk. Minbizi hau arriskutsua da 50 urte dituztenen artean, menopausiak

dakartzan gorabeherengatik. Bestetik, haurrak 25 urte bete baino lehenago izanez gero, minbizia izateko arriskua jaitxi egiten da. Aitzitik, lehen hilerokoa oso goiz izan bada (10 urte bete baino lehenago) eta azkenekoa 55 urte pasatuta, arriskua igo egiten da. Beste faktore bat, ixa izpiak ditugu, beraz, mamografiak egoki egin beharko dira. Amaitzeko, menopausian daudenen artean gainkarga handia dutenek ere arrisku gehiago izango dute.

Honen aurrean, minbizia azaltzea saihestu ezina bada ere, lehenbailehen diagnostikatzea garrantzitsua da eta hortaz prebentzio neurri batzuk har daitezke. Hala nola, bularrak haztatu edo ukitu, bularrak ezagutu eta aldaketak sumatu ahal izateko. 30-35 urte bitartekoek medikuarengana jo beharko lukete miaketa bat egiteko, ezer arrarorik ikusten ez bada 40urterekin egingo da lehenengo mamografia. 40-50 urte bitartekoek mamografia bat egin beharko dute bost urtetik behin eta 50 urtetik gorakoek bi urtero.

Amaitzeko aholku pare bat eman zituzten. Kontrolak egitea oso garrantzitsua da eta beraz ez utzi egiteari. Bestetik, minbizia agertzen bazaizu, jarrera positibo batez hartzen saiatu, animoak asko laguntzen baitu. Azkenik, elkarte batetara jo dezakezu, bertan zu laguntzeko prest baitaude.

AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Estazioko kalea, 19 Faxa: 943 861067

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

Alejandria txikia



Egipton ireki berri dute munduko liburutegi handiena, orain dela 2.000 urte erre zena zegoen toki berean. Zumaiako liburutegia ere itxita egon da berrikuntza lanak egiten ari zirelako. Hilaren 12an ireki zuten berriro, eta lehenagokoarekin zerikusi gutxi dauka.

Berrikuntzak

Nabarmenena lekua handitzea izan da. Lehen hauren liburutegia zegoen tokiraino zabaldu dute helduena. Ondorioz, esertzeko jarleku gehiago dago. Lehen berrogeita bostentzako lekua zegoen, eta orain hirurogei baino gehiago ere kabitzen dira. Hauren liburutegia beheko solairura jaitsi dute orain. Apalak ere zaharrak ziren, ez Alejandriako antzinako liburutegikoak



bezain zaharrak, baina urte askoan pisu handia jasandakoak. Orain berriak jarri dituzte, eta tarte gehiago dago liburuentzat. Beste aldaketa bat teknologia berriei dagokiena izan da. Liburuak eta filmak DVD formatuan ere badaude orain. Musika entzuteko tresnak ere ez dira falta. Gai-

nera bakoitzak nahi duen tokian entzuteko aukera dago.

Helburuak

Josu Egañak, liburutegiko arduradunak kontatu digunez, bi helburu nagusirekin egin dute berrikuntza guztia. Batetik, leku gehiago izan eta handitzen jarraitzeko aukerak izateko, eta bestetik, teknologia berriak sartzeko.

Irekita dagoen arren, inaugurazio ofiziala (ez benetakoa) hilaren bukaeran izango delakoan daude. Hala ere, badakizue irekita dagoela. Liburu mordoa dago ireki eta irakurtzeko amorratzen. Gure Alejandria txikia irekita dago, beraz. Orain irakurtzen gozatu!!

Egunero-egunero hizketarako gaia izaten dugu eguraldia. Denok egiten dugu eguraldiaren iragarpena adituak bagina bezala. Josebak egunero hitzetik hortzera erabiltzen ditugun kontu batzuk argitu dizkigu. Jakin gabe hitz egitea...

Igande goiza da. Eguraldi tristea izan arren, ateri dago. Bada zerbait. Joseba zintzo demonio azaldu da hitzordura, bere iragarpenak bezain zehatz. Itxura ona dauka elkarrizketa honen iragarpenak. Asmatuko al dugu?

Fisika ikasi eta gero, meteorologia aukeratu zenuen. Zergatik?

Fisika ikasi baino lehen erabakita nuen meteorologian aritu nahi nuela. Pentsa, zazpi urte neuzkanetik gustatzen zitzaidan., baina zergatia ez dakit. Ez daukat arrazoi konkretu bat. Familiar ere lan honetan aritutako

"Hiru egunetik aurrerako iragarpenetan
fidagarritasuna

asko galtzen da"



inor ez dago. Zerura begira egoten nintzen, eta hodeiak asko gustatzen zitzaizkidan. Eguraldiaren berri entzutea ere gogoko nuen. Naturekin zerikusia daukan dena gustatzen zitzaidan: itsasoa, atmosfera... Hori gazetetan zen, eta gero jakin nuen meteorologo izateko fisika ikasi behar zela. Meteorologia fisikako karreraren barruan dagoen arloa da. Hiru urtez fisika ikasi nuen, eta gero beste bi urtez meteorologia Madrilan.

Kaleko jendearentzat meteorologoa telebistan eta irratian eguraldiaren berri ematen duen pertsona da. Baina guk ikusten dugunaren atzean lan handia izango da. Nolakoa da zure lanegun bat?

Hasteko, esan behar dut, telebistan agertzen direnak kazetariak izan daitezkeela. Ez dauka zertan meteorologoa izan behar. Hor informazio ematen da, eta horretarako kazetariaren gaitasuna lagungarria da.

Nire lanegun bat? Ba nik zortzi orduatik hiruzpalau orduetan hainbat eredu matematikoren irteerak begiratzen egoten naiz. Pila bat daude. Oro har ekuazio berak dituzte, baina irteera ezberdinak. Hori egiten da atmosferak zein joera dituen aztertzeko. Datu asko aztertzen ditut, eguneko, hurrengo eguneko eta beste bi eguneko iragarpenak egiteko. Mapak ikusten ditugu eta gero iragarpena idatzi. Beraz, eredu matematikoak aztertu, eta radarak eta meteosat-ak emandako datuak begiratu ondoren iragarpena idazten da. Esperientzia oso

garrantzitsua da iragarpena egiteko. Nik urtebete daramat, eta hasieran baino ziurtasun handiagoa daukat. Gero egiaztatu egiten ditugu, eta nahiko ondo nabil. Sentsoreak, plubiometroak eta horrelako tresnak ditugu egiaztatzeko.

Aurreko egunean gertatutakoaren azterketa ere egiten da, ea tenperaturek gora edo behera egin duten... Ikerketan ere aritzen gara. Iragarpenak hobetzeko ikerketak egiten ditugu.

Horretaz gain, ozeanografian ere sartuta nago. Olatuak iragartzeko eredu batekin ari gara lanean, eta denbora asko kentzen dit. Urtebete barrurako prest izan nahi

"Esperientzia oso garrantzitsua da iragarpena egiteko"



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334



**Kaleko jendearentzat errazagoa ere bada tenporetan sines-
tea, ekuazio eta matematika kontuez piperrik ere ez due-
lako ulertzen.**

Bai, bai, hori horrela da. Gainera tenporek hiru hilabe-
terako iragarpena egiten dute. Teknologiarekin hori
ezinezkoa da. Hiru egunetik aurrera fidagarritasuna
asko galtzen da. Egoera egonkorra bada zazpi egunera-
ko iragarpena egin daiteke, baina normalean hirugarren
egunetik aurrera zaila da asmatzea. Hala ere, orain ari
dira hiru hilabeterako iragarpenak egiteko ikerketete-
tan, baina oso gauza gutxi. Adibidez, bi hilabeteen euri
kopurua zenbatekoa izango den iragarri dezakete,
lehen baino gutxiago edo gehiago egingo duen, baina
ez dakit zenbateraino asma daitekeen.

dugu, itsasoaren, eta batez ere ola-
tuen iragarpen zehatza egiteko. Oso
eredu ona da.

Bestalde, larrialdi egoeraren bat
iragartzen badugu, hogeita lau
orduz norbaitek egon behar iza-
ten du bulegoan. Baina horiek
bestelako kontuak dira, egunero-
kotasunetik kanpo daudenak.

**Aipatu dituzu ekuazioak, plubio-
metroak, radarrak, etab. Teknologia, azken finean, eta ez
tenporak.**

(Barre egiten du). Tenporek ez daukate oinarri zientifi-
korik. Aurtengo udan garbi gelditu da hori. Ekaina txar-
ra, uztaila erdipurdikoa, eta abuztua oso ona izango
genituela iragarri zuten. Ikusi da ez dutela asmatu.
Ekainekoa asmatu zuten, baina uztailakoa eta abuztu-
koa ez. Oinarri zientifikorik ez daukate. Nik ez dut ten-
poretan sinesten. Onartu onartzen ditut. Edadeko jen-
deak bai sinesten duela. Ohitura kontua da. Gainera
asmatzen duten edo ez ahaztu egiten da, baina ez asma-
tuta ere asmatu egiten dutela dirudi. Ohitura kontua da.

Gizakion eragina
handitu egin da
klimaren berezko
aldaketa horretan:
industriak, kutsadura..

**Gai sakonagoetan sartuta, zuen
enpresa noren menpe dago, alegia,
estatuarena da edo Eusko Jaurlari-
tzarena?**

Gurea enpresa pribatua da, baina
Eusko Jaurlaritzarentzat egiten
dugu lan. Azken hilabeteotan
Euskal Institutua sortzeko lanetan
ari da, eta ematen du egin egingo
dela. Enpresa publikoa sortu nahi
du. Euskal Herri guztirako iragar-
penak egingo lituzke, baina

horiek politikako kontuak dira. Hala ere, gu hor izango
garelakoan nago.

Ekaitza ugari, beraz, politika munduan.

Bai, bai, dudarik gabe (barrezka)

**Berriro eguraldiaren gaira itzulita, zergatik egin du hain
uda txarra?**

Azken hamar urteetako txarrena izan da, baina berrogei
urte atzera eginez gero, izan dira aurtengoa baino bost uda
txarragoak. Ez da, beraz, hain arraroa uda eskasa egitea.
Orokorrean urte sasoi hori ez da hain ona izaten, baina
azken hamar urteetan nahiko onak egin dituzenez, gaizki
ohituta geunden. Normalean ipar haizeak jotzen du, eta

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAIK HORTZ KLINIKA

Plazoleta de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Iraundegi Elgoiber

KABI
TABERNA - ZUMAIK

Tel. 943 143379

TXOMIN AGRRE, z/g
TEL: 943 865369

KAIA
Kafetegia

egoera sinoptikoa deitzen dioguna gertatzen da: tenperatura freskoak, haizea, hodeiak. Euri asko ez du egiten, hala ere. Hortaz, uda honetakoa ez da hain arraroa izan.

Kalean behin eta berriz entzuten da eguraldia zoratu egin dela. Zuk diozunaren arabera, ez da hainbesterako, ezta?

Hori da. Horrelako eguraldia egitea normala da. Adibidez, udazkenean, hego haizea egotea oso normala da, eta horrek epeltasuna eta eguraldi ona ekartzen ditu. Udazkenan udan baino eguraldi hobea egiten du askotan, baina hori normala da. Eguraldia zoroa beti izan da; orain ez da zorutzen ari.

Udazkenaren atzetik negua dator. Nolakoa izango da?

Hori tenporek esango dute (barrezka). Neguko iragarpena egiteko ez daukagu oinarrizko teknikarik. Ez naiz ausartzen ezer iragartzen. Eta tenporetan sinesten ez dudanez... Lehen esan bezala iragarpenen fidagarritasuna hiru egunekoa da. Iazko neguak bi zati izan zituen: azaroan eta abendua hotz egin zuen; urtarrilean eta otsailean epel hego haizearen eraginez. Ikusiko dugu aurten zer gertatzen den. Elurteren bat egiteko itxaropena daukat. Elurra asko gustatzen zidalako esan dut hori, baina ikusiko dugu.

Kalean hitzetik hortzera dabilena aldaketa klimatikoaren kontua da.

Bai, asko aipatzen da aldaketa klimatikoa., eta batez ere berotegi efektua, "efecto invernadero" delakoa. Dioxido karbonoa bikoiztu eta tenperaturak epeldu egin direla esaten da. Hala ere, horren ondorioak zein izango diren jakitea oso zaila da. Adibidez, gerta liteke planeta osoa berotzen ari den neurrian, Europa mendebaldeko klima hoztea, itsasoko korrante batzuk puskatuko lituzkeelako berotze horrek. Baina denetik gerta liteke. Klima berez aldatu egiten da, gizakia egon ez balitz ere, aldatu egingo litzateke. Gertatzen dena da, gizakion eragina handitu egin dela klimaren berezko aldaketa horretan: industriak, kutsadura... Ez dakiguna da zenbateraino den berezko aldaketa edo gizakiok eragindakoa.

Ondorioz, aldaketa horrek hemen, Euskal Herrian izango

lukeen eragina zehaztea oso zaila da, ezta?

Dudarik gabe. Gerta liteke lehen aipatutakoa, klima hoztea, alegia. Horrekin euri gutxiago egingo luke. Baina zaila da zehaztea. Aldaketa badago, baina eraginak nolakoak izango diren aurreikustea oso zaila da.


Bukatzeo, noiz ikusiko zaitugu telebistan?

Auskalo!! Eusko Jaurlaritzak nahi du komunikabideetako iragarpenak egiten gu azaltzea. Hala ere, nahiago dut atzeko lan polit hori egin. Horixe gustatzen zait.



JOSEBA EGAÑA

29 urte ditu Joseba Egañak. Fisikan lizentziatua da, meteorologia arloan. Zaletasun dezente ditu: musika, futbola, xakea, lagunekin kalean ibiltzea, irakurtzea eta zinea. Hori bai, tenporetan ez du sinesten.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Erribera kalea Tel. 943 861523

“Narrondon arazo asko dituzte. Zumaia eta Zestoa artean banatuta dagoen auzoko arazo konponbidea behin eta berriz eskatzen ari dira bertako bizilagunak. Baina bi Udalen erantzuna, erantzuten dietenean, ezezkoa izaten da beti.”

“Narrondo hiltzen uzten ari dira”

Gaiaren mamiari heldu aurretik, irakurleari zor diogun azalpena eman beharrean gara. BALEIKEK gai hau aztertu nahi izan du. Horretarako Narrondotarrekin eta Zumaia-ko Udalarekin hitz egiteko asmoa genuen. Baina asmoen erdia bakarrik bete dugu. Narrondoko Auzo Elkartek arazo berri eman digu. Horra arte, oso ondo. Udalak, ordea, ez du aurpegia eman. Ezkutatu egin da. Alkate jauna-

rekin hitz egin nahi genuen, gutako baten telefono zenbakia ere eman genion. Deitzekotan gelditu zen, baina emandako hitza haizeak eraman du, nonbait.

Azalpenak lagata, mamiarekin hasiko gara, badauka nondik heldu eta. Narrondok hamaika arazo ditu, eta gehienek eguneroko bizitzan oinarrizkoak diren gauzetan dute eragina. Aldameneko orriko taulan daude arazo horiek. Hala ere, batzuk aipatuko ditu-

gu: argia indar gutxikoa, ureztaketarako sarrerarik eza, haurrak jolasteko lekurik eza, telebista seinalera ere falta zaie, etab. Ez dira, beraz, arazo txikiak.

Behin eta berriz bi Udalekin harremanetan jarri dira arazo horien eta beste askoren konponbidea eskatzeko. Baina auzotarren borondatearen laurdenik ere ez dute azaldu agintariek. Eta horrek, noski, kokoteraino dauzka Narrondoko bizilagunak, "borondate guztiarekin auzoa aurrera atera nahi dugu, bultza-

Haserre hori beldur eta kezka bihurtzen da uholdeak dauden bakoitzean



kada eman nahi diogu, baina ez digute uzten", esan digu batek. Esaldi horrek ederki adierazten du, batetik, arazoaren gordintasuna, eta bestetik, beraien haserrea.

Uholdeak direla eta

Haserre hori beldur eta kezka bihurtzen da uholdeak dauden bakoitzean. Abuztuan, dakizuen bezala, dezenteko txiki-

zioa egin zien urak. Joan zen astean ere euri-jasa handia bota zuen, eta Narrondon kezkatuta egon ziren. Euri asko egiten duen bakoitzean beldurtuta egoten dira. Beraiek diotenez, Narrondotik igarotzen diren bi errekek bat egiten dutelako gertatzen da hori. Beste motibo bat zubiaren hanka dela esan digute. Leku horretan zurrunbilo antzekoa egiten da, eta urak gainezka egiten du.

Uholdeen arazoa konpontzeko ere eskatu diete Udalei, baina alferrik. Kalteei aurre egiteko eskainitako diruarekin ere ez daude konforme. Gutxiegi dela

diote. Gainera, Zumaiaiko alkatearen esanetan, abuztuko uholdeei komunikabideetan zuena baino garrantzia handiagoa eman omen zitzaien. Eta horrelakoak entzunda, noski, sutu egiten dira Narrondokoak. Behar bezala lagundu ez, eta gainera halakoak entzun behar.

Narrondoko Auzo Elkartearen arabera, uholdeak saihesteko egiten dituzten konponketek ez dute ezertarako balio Behin eta berriz eskatu diote Zumaiaiko alkateari, Aldundian eta Jaurlaritzan uren arazoez arduratzen direnei Narrondora joateko eskaera egin die-

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAJA • Tel. 943 861191

NARRONDOS
TABERNA

Goizeko 5:30etatik
asteleheneetik larunbatara
PINTXO eta OGITARTEKOAK
TEL: 943 86 24 90



zaien. Alkatearen erantzuna hauxe: inork ez omen du nahi Narrondora joan. Auzotarren esanetan, hori gezurra da, beraiek Eusko Jaurlaritzako jendearekin hitz egin dutelako eta etortzeko prest daudela esan dietelako. Bistan denez, izugarriko nahaste-borrastea dago. Bien bitartean denborak aurrera egiten du eta

arazoez bere horretan jarraitzen dute.

Itxaropen txiki bat

Hainbesteko iluntasunean argi izpi bat agertu zaie Narronkoei. Proiektu pribatu bat da. Horrekin 100 etxebizitza, pilotalekua, elkarte berria eta plaza eraikiko lirateke. Gainera, uholdeak saihes-

tuko lituzkeen konponbidea ere egingo litzateke: bi errekek bat egitea galarazi. Auzotarren gehiengo proiektuaren alde dago. Hala ere, pribatua izateak kezka eta zalantza sorrarazten dizkie.

Proiektu denek baimenak behar izaten dituzte aurrera eramateko. Lehenbizikoa Udalarena. Bada, Zumaia-koak ezetz esan die. Narrondokoen esanetan, ezezko horren atzean alkatea dago. Hori baieztatzeko hauxe diote, "Zumaia-ko EAJko batek esan digu alkatearen jarra alderdiaren aurkakoa dela". Ezezko horren inguruko katramila gehiago nahasteko, proiektuaren egileak esan diena dago: goragoko erakundeek baimena eman diotela. Zergatik Udalaren ezetza? Auzokoen ustez, etxebizitza kopuru jakin bat eraiki nahi du Udalak Zumaian. Narrondoko proiektuko etxeak enpresa pribatu batek eginez gero, Zumaia Lantzen-en bitartez eraiki beharreko etxe kopuruak behera egingo luke. Eta horrek etekinak gutxitzea

HARRAPA ZAK

LOTSAGARRIA

BI HERRIEN BAITAN dagoen Narrondoren egoera lotsagarria da. Hainbestetan hitzetik hortzera erabiltzen den XXI. mende bedekatu bizi, eta egunerokotasuna behar bezala bizitzeko beharrezkoak diren baliabideak ez izatea lotsagarria da. Lotsagarria da Zumaia-ko eta Zestoako alderdi politiko guztiek Narrondok pairatzen dituen arazoen aurrean ezer ez egitea. Lotsagarria da arazo horiek denak konpontzeko ardura duten bi Udalen jarrera. Auzoak aurrera egiteko borondatea ez dutenek, borondatea dutenei behin eta berriz ezezkoak ematea lotsagarria da. Jarrera

eskas horiek mantentzeko arrazoirik ez duenak gezurra erabili beharra lotsagarria da. Lotsagarria da Narrondora boto alu batzuen bila bakarrik agertzea. Lau urtean behin zeruak eta lurak agindu, baina gero hitza ez betetzea lotsagarria da. Bizi nahi duen auzoari, jende multzoari, azken finean, arnasa kentzea eta itoaraztea lotsagarria da. Lotsagarria da uholde arrisku beldurgarria dagoen tokian behin betiko konponketak ez egitea. Kotxe baten ordez, urek norbait eraman arte zai egotea lotsagarria da. Esan beharrezkoak aurpegi esateko adorerik ez izatea, eta adore falta hori ezkutatzeko gezurrak esatea ere lotsagarria da. Lotsagarria da....



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91



dakar. Beraien ustez hori da ezetzaren arrazoia. Tamalez, ezin dugu jakin alka-teak eta Udalak horretaz zer dioten. Eta hasieran esan bezala, ez da nahi izan ez dugulako.

Baina, tira, jarrai dezagun aurrera. Udalaren ezezko horren aurrean, proposamen hau egin diote Narrondokoek: Udalak berak egin dezala proiektua Zumaia Lantzen-en bidez. Erantzuna, orain ere ezezkoa. " Pribatuak egitea ez badu nahi, Zumaia Lantzen-en bitartez egiteari ere zergatik ezezkoa?" galde-tzen dute narrondoarrek.

"Baztertuta sentitzen gara"

Azken finean, auzokoei berdin zaie arazoak batek edo besteak konpondu. Behin betiko ahaztu nahi dituzte hain-beste buruko min ematen dizkieten arazo horiek. Horretarako, hitz egin behar denarekin hitz egiteko prest daude. Borondatea nahi beste dute. Udalei ez diete, ordea, borondaterik antzematen. Ondorioz, etsitzen hasita daude.

Egia esan, badituzte arra-zoi ugari etsita egoteko. Zumaia eta Zestoako Udalean ordezkaritza duten alderdi bat bera ere ez omen da Narrondo ardu-ratu, "alderdi guztiek baz-tertuta gauzkate, bai Zumaian eta bai Zestean".

Zumaiaiko Udalak Narrondoko Auzo Elkartea ere ez dauka onartuta. Udalen-gan zuten konfiantza guztia galdu dute. Bi Udalen arteko bilerarik ere ez omen da egin Narrondoko gaiari buruz hitz egiteko. Horrek denak, normala denez, etsita dauzka narrondoarrek. Gauzak asko aldatzen ez badira neurriak hartze-ko prest daudela esan digute. Auzoa badoala diote, hiltzen ari dela. Gogorra, baina egia. Egia gordina. ■

Borondatea nahi
beste dute. Udalei
ez diete, ordea,
borondaterik
antzematen


ESKAERAK

Bukatzeko, Narrondokoen pare bat eskaera jakinaraziko dizkizuegu. Eskaera hauek Udalei zuzendutakoak dira:

- Udaleko batzarretan auzotarrei parte hartzen utzi.
- Hil honen bukaerarako Zumaiaiko Udalarekin bilera egitea.

UDALEK BETE EZ DITUZTEN ESKARIAK

- Ureztatze sarrerak egitea
- Haurrentzako jolastokia egitea
- Telebisten seinaleak jartzea
- Argizatze gehiago eta hobea egitea
- Uholdeak pasa eta laguntza eta neurri egokiak hartzea
- Garbiketa edo saneamientuari buruz agindutako bilera egitea
- Zumaiaekin bat egiteko espaloiak eraikitzea



Tragediaren oroimena

1 960ko Azaroaren 18an Donostiako Aurrezki Kutxaren irratsaioan Basarri jaunak errezitatu zuen olerkia eta kantatu zituen bertsoak dakartzagu Baleike-ren orrialde honetara, berrogeita bi urte igaro diren honetan. Basarri, bertsolari handiaren dokumentu historiko honek merezi zuela uste dugu gure herri aldizkari honetan plazaratzea, zumaiarrok hain gogorki astindu gintuen gertae-

Bertsolaritza



Bertso eskola

ra mingarri haren testigu geldi dadin guztion oroimenean. Itsa-soak gazte haiek eraman zituen lekuan, han dugu geroztik oroigarria Paolaldean muturraren horman grabaturik Ez ote da bestalde garaia kanpotarren eta bertakoen begien bistan dagoen Junta de salvamento 15 de noviembre dioen idazkia euskaratzeko?

1960KO AZAROAK HAMABOST

Herri bat ikusi det antsiz
herri bat ikusi det negarrez
Gerta zaion ezbehar hortan
bihotza lertu beharrez.

Noiz arteraino, ene Kantauri
zure haserre jokera
Noiz artean, zu baratz gureko
lore ederrenak moztera ?

Kantauri itsaso, Kantauri itsaso
noiz arte zuk zabarkeriak ?
Noiz arte beltzez estali behar
dituzu gure herriak ?

Noiz arte erdibitu nahi zuk
Euskaldun amen bihotzak ?
Noiz arte hega behar dituzu
berri triste ta mingotsak

Noiz arte zabal behar dezu zuk
sutondoetan negarra ?
Noiz arte degu guk euskaldunok
zorra ordaindu beharra ?

Kantauri itsaso orrularia
nolaz zu horren zakarra ?
Zure oinetan hor ikusi det
herri on baten negarra.

Zer da, itsaso, zure sabel zar
inoiz ase ezinekoa ?
noiz arte behar dezu, Kantauri
noiz esan behar, "nahikoa"?

Ene, Jaungoiko ahalguztiduna,
zeru ta lurren jabea,
mutiko hoiekin ugaldu zazu
zure aingeru taldea.

Ezerez honek hau du gau hontan
gogoz eskatzen dizuna,
Galdu dituzten gurasoei
eman eramankizuna.

RUDY HOLKE

Bihotz handiko gazte sendoa
ta ongile berezia
txalorik bero ta sutuena
daukazu hain merezia.
Zumaiak ez du inoiz ahaztuko
zuk egin dezun guzia,
beste batzuek salbatzearren
arriskatuaz bizia.

Bazter guzitan ondo jakin zan
zure lanketaren berri
denbora gutxiz igaro zendun
makina bat une larri
uraren mende sei mutiko ta
zuk bat bizirik ekarri
zure izena hor gelditzen da
guztion gogoangarri.

Basarri

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

 OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

4 Ahatea laranjarekin

laguntzat osagaiak:

- ahate eder bat
- tipula handi bat
- bi azenario
- bi azukre-kozkor
- kopa bat ardo txuri
- kopa bat brandy
- kopa bat cointreau
- heldutako edo ondutako bi tomate
- bi kutxarakada ozpin
- laranja bat
- burduntzalikada bat haragi-zuku
- olio eta gatza



Befiat Fernandez de Arroyabe
Sukaldaria


Honela egiten da:

Ahatea garbitu ondoren, laberako ontzi batean ipini. Gatza bota eta gero, hamar minutuz labean gorritzen utzi. Gorritu ondoren, txikitutako tipula eta azenarioak gehitu. Dena egosi. Tipulak gorritzen direnean, ardo txuria, zatitutako tomateak eta haragi-zuku pixkat bota. Egin arte bertan laga.

Ahatea beste ontzi batera atera eta salda txanotik pasa. Beste ontzi batean azukrea karamelo bihurtu arte urtu eta ozpinarekin busti. Brandy eta cointreau gehituko dizkiogu urtutako azukreari eta ozpinari. Minutu batzuetan irakin eta ahatearen saltsarekin nahastu.

Laranjak zuritu eta zati mehetan txikitu ondoren, 5 minutuan egosi.

Ahatea lautan zatitu eta egindako saltsarekin batera ontzi batean ipini. Laranjak zatiekin apaindu eta ON EGIN!!



Sukaldaritza

Erlazantza gaiak terapeutika naturalean

Dietetika

E

ZTIA: GOZAGARRIA izateaz gain, eztiak erabilgarritasun handia dauka sendagarri bezela.

Gure gorputzak oso erraz bereganatzen du eta azukreaz gain, mineral (batez ere potasio eta fosforoa) kopuru handia du.

Izaga Garcia Erabilpenak:
Dietista -Suspergarri egokia, ahultasuna, estresa etabar. dagoenean.



- Gibela estimulatu du.
- Burmuinaren funtzionamendua hobetzen du.
- Antiseptikoa eta antibiotikoa da.
- Oso eraginkorra da arnas aparatuko arazoetan.
- Eztia ateratzen den lorearen arabera (ezkaia, erramua, labanda...) eraginkorragoa izango da hainbat gaixotasun tratatzeko.
- Polena: Polenak 50etik gora substantzia aktibo ditu (halanola: fosforoa, kaltzioa, magnesioa, burdina eta bitaminak).
- Erabilpena:
 - Energetiko eraginkorra da; apetitua irekitzen du, nekea uxatzen du, afrodisiako leuna da...
 - Presio arteriala erregulatzen du.
 - Hesteak erregulatzen ditu: diarrea edo idortasuna.

- Odolean azukre kopurua murrizten du, eta diabeterako interesgarria da.
- Gibela erregulatzen du.
- Alergiak sendatzeko interesgarria da.
- Propoleoa: Antibiotiko naturala deiturikoa, polena, argizaria, bitamina eta mineral ugari ditu.
- Erabilpena:
 - Sistema immunitarioa indartzen du, eta gaixotasun infekzioen prebentzio eta sendaketan oso eraginkorra da.
 - Bakterizida eta fungizida da (bakterio eta ondoak hiltzen ditu).
 - Anestesiko, antiinflamatorio eta zikatritzante bikaina da.
 - Oso eraginkorra da aho eta arnas aparatuko gaitzetan: farinjitisa, bronkitisa, anjina, gripeak...
 - Kanpotik erabilia, lagungarria da zaurietan, psoriasian...
 - Jalea erreala: Erleek erle erreginaren elikadurarako esklusiboki laboratzen duten produktu hau, proteina, mineral eta bitaminaz bete dago.
 - Erabilpena:
 - Indargarria da.
 - Glandula endokrinoetan eragina du, beraz hormonon produkzio eta erabilpenean.
 - Gorputzari angustia eta depresioen aurrean gogortasuna ematen dio.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



icardo J. Azcue Yeregui
Abokatu + Aseguruak
Finka Administrazioa

bonin aguirre 4. behe
20.750 zuzkila (guzkoa) Tel. 943 862651
E-mail: iazcue@euskalnet.net Fax: 943 862748



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erroa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Txerriya hiltzeko garaia dala ta,

Ze etzenuke aprobetxauko hildako txerritik?



Kontxi Rubio
 Nei txerriya etzat gustatzen, baña burua ta hankak enituzke ikutuko.



Josune Sasiain
 Txerrixetik dana aprobetxatzea: hankak, burua... Nei asko gustatze zat.



Aitor Aldalur
 Bado erderazko esaera bat: txerriyan dana aprobetxatze'a ibiltzeko era kenduta.



Josu Egaña
 Buztana.



SIWA
 Belardenda
 Basadi 9
 943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastarook



INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
 Ortega y gasset, 1



Tiberio, Tiburtzio, Toribio eta gainontzeko txerrien omenez

Gure borondate onenarekin bildu gara, hemen, txerritoki honetan. Asmo xumea da gurea, zintzoa. Horregatik prentsa eta argazkilari guztiei txerrikeriak ez idazteko eskatzen dizuegu. Ez haserretu, azkenaldian irakurtzen direnekin hori esateko motiboak ditugu eta.

Natorren harira. Kontua da San Martin garaia dela. Eta denok dakizue, hemen bildutako txerri maiteok, guretzat urteko garairik txarrena izaten dela. Ni neu urtero libratzen naiz, izan ere, itxura eskas honekin hilda baino probetxu gehiago ateratzen didate bizirik. Baina zuek, anai-arreba maiteok, txerri itxura eder horrekin ez zarete berehala libratuko. Ez horixe!! Zer egingo diogu ba!! Txerrikeria galanta da txerri bixitza, eta beti hala izan denez, orain ez gara aldaketak eskatzen hasiko.

Ai ama (goian bego), berriz haria galdu dut. Barkatu,

txerriok, baina emozioagatik da. Tiberioooo!! Tiburtziooo!! Toribiooo!! Beste mundura joan zineten, gure edertasun paregabeak peria garrantzitsuenetan erakutsi ondoren. Zuek zarete gure santuak, gure ereduak. Aita Santuari eskaera egitea erabaki dugu Txerri Batzordean, santu egin zaitzaten. Ea beste bat bezain azkar kanonizatzen zaitzuten.

Orain, bukatze aldera, nik esandakoa errepikatu hildako anai-arreba guztien izenean: kurrin-kurrin, kukukurrin, kurrinkukurrin. Ea denok batera!! Hori da, oso ondo!! Ederra txerrikeria!!

Eskerrik asko hona etortzeagatik. Orain bakoitzak ahal duena egin dezala. Aldameneko horiek hor inguruan ibiliko dira eta. Badakizue: hiltzeko gizendu!! Hori da gure lema.



Tiberio x.

Nei utzi pakian presaka nabil eta.



Telmo

Gu hiltziare. Hain gea xarmantak eta politak!!

Kapaia
Zakaria

Erribera Kalea 20750 ZEMALIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

STIAOM
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

AROSZTEGIA

Urolo 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505



aluga-se!

baleke

Goikoaren izenean




Hasteko sekretu txiki bat, inori kontatzen ez den horietakoa: ni ez naiz hor goikoa, eta ez nago Lisboan. Ni beste bat naiz, eta hemen nago, Zumaian. Oraingoan hor goikoak ez digu ezer idatzi. Beno, zerbait bai, baina ez hemen azaltzeko. Tarteka-tarteka korreo elektronikoa astindu du, eta oso lasai dagoela kontatu dit, lasaiegi. Badakizue Erasmus zer den. Kanpora ikastera joan, eta beste gauza batzuk ikasi. Hortan ariko da orain.

Beraz, oraingoan, aluga-se benetan da aluga-se. Zerbait honetan alokairuan jarri dugu orrialde hau. Bete behar zuenak bete ez duenez, neuk alokatu eta horretan nabil, betetzen. Betelana egiten. Aizue, batek baino gehiagok jakingo du zer den ordenagailu aurrean eseri eta zerbait idatzi nahi eta idatzi ezin hori. Ba, horrelaxe nago ni. Ea zerbait bururatzen zaidan!! Xabi alu (ga-se) hori!! Lisboan ikusten dut fadoak abesten.

Klasera joan beharrean kalean gora kalean behera. Lagun berriak egiten, kanpoko eta bertako jendea ezagutu nahian. Oikia non arraio dagoen azaltzeko izugarriko esplikazioak ematen (pentsa, Euskal Herria non demonio dagoen kontatzeko kristorenak eta bi egin behar izaten dira hor zehar) Bazterrak nahasten. Auskalo non! Hor beheko mapan begiratu ezazue. Hori bai, pozik eta gustura ibiliko da. Berriz elkar ikusten dugunean entzun beharko dizkit. Bera patxada ederrean, eta ni, hemen, kaka esplikatzeko. Baina tira!! Oraingoa barkatuko diot, ezta? Nahiz eta karteltxoan jartzen duena jarri, beste aukera bat emango diogu. Sakon sakonean mutil ona da eta. Hurrengo zenbakirako gonbitea eginda dauka. Ea betetzen duen!! Denon onerako izango da. Alde ederra dagoelako hor goikoak idatzi edo nik idatzi, baietz?
XABI BEHAR ZAITUGU!!



Non dago Xabi?
Agian tranbian alde egingo zuen.



GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuertarako departamentua

Ohizko tratamenduez gain:


CORO PRIETO
Esteticista

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g Tel. 943 861322



Kuadrilako lagunak
 elkartu gera ta
 Ondo pasatzen degu
 nahiz ta txurre falta
 Txurre onena dala
 aupa TXURRE! TXURRE!
 Gurekin nahi zaitugu
 aupa TXURRE! TXURRE!



Tel. 943 860000

ERROTA
 OPIL-OKINDEGIA

EGOKI

Erloju
 eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI
 G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
 943 86 22 65 - 609 46 56 37

Nolako eskola, halako ikasleak...



Iñakik eta Gotzonek Munduko txapeldunak izateko urte askoko lana egin behar izan dute. Langintza horretan, ordea, ez dira bakarrik aritu. Zumaiaiko zesta-punta eskolak asko lagundu die, bai beraiei baita beste askori ere. Horregatik Iñakik eta Gotzonek eskolari buruz idatzi digute eskerrak emateko asmoz.

Eskolak asko lagundu dit

11 urte nezkarian hasi nintzan zesta-puntan. Frontoira jun eta han ibiltzen giñan. Orduan eskola sortu gabe zeon, baina jende dexente biltzen giñan: Osa anaiak, Jon Ulazia, Beristaindarrak, Unai Zinkunegi, Peio Franko eta Carballo. Giro earra zeon gure artian. Eta gogua nahi beste. Hasiara hartan Sebastian Ulazia ta ari zian erakusten. Haiek zekitena guri erakusten ziguen. Geroa jende askok izena eman tzula ikusita, eskola sortzia erabaki zuen. Hasiara batian Mugertza guretzako zestak egiten hasi zan, baina geo maixu

lanetan buru-belarri sartu zan. Eskolagatik ez bazan ez nitzan uaingo maila aillatuko. Asko lagundu dit. Uain konturau da jendia ze lan ein dan eskolan, baina urte askoko lana da.

Gotzon Enbil

Zumaiaiko eskola bereziya da

Anaiak zeukan zesta bateatik hasi nitzan jolasten. Esan leike kasualidadia izan tzala. 7 urte nitun orduan. Hiru anaiak hasi giñan, baina eskola sortu gabe zeon garai hartan. 1988an sortu zan. Iritsi naizen lekuraino iristeko eskola ezinbestekua izan da. Hasi nitzanian e'nun pentsatzen honeaino ailleatzia. Horreatik eskerak eman nahi dizkiet erakutsi diaten maixu danai.

Etorkizunian pelotai geyo ateako dia. Kontua saiatzia da, goguakin jardutia, baina Zumaiko eskolak badu zerbait bereziya.

Iñaki Osa Goikoetxea



Mota guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, beheha
943 86 27 14

Y
I
N



Y
A
Z
G
Z

GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erreteria

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

Mundiala



Iban Iriondo txirrindulari zumaiarra Munduko Txapelketan izan da. Han bizi izandakoa berak idatzitako bi orrialde hauetan aurkituko duzue.

LEHENIK ETA BEHIN, esan behar dut, irailaren 15ean jakin nuela mundialetarako fijo bat nintzela. Irailaren 12-tik 15-era Italian lau eguneko buelta bat korritzera joan nintzen Espainiako selekzioarekin; bertan, Europako selekzioek parte hartzen zuten eta nahiko lan txukuna egin nuenez, mundialetarako hartzea erabaki zuten.

Ordutik buru-belarri hasi nintzen entrenatzen mundialerako sasoi puntu egokiena bilatzeko.

Belgikarantz urriaren bederatzian abiatu ginen hegazkinez, hamabian korritzen baikenuen. Aukeratuak bost izan ginen: murtziar bat, galiziar bat, kantabriar bat, madrildar bat eta ni. Lehenengo egunetik

Pertsonaia ugari
ezagutu eta
beraiekin
berriketan
aritzeko aukera
izan nuen



TXINGURRI

Koof. Elk.

Nekazaritza Injeneru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantentimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantentimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
AROTZEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A

jada ondo eramaten hasi ginen, horietatik hiru Italian elkarrekin egon ginelako eta beste biak ere lehenagoko kontzentrazio batzuetatik elkar ezagutzen genuelako.

Mundialak Zolder-en ziren eta gure hotela handik 50 km-ra zegoen. Hotela oso ondo zegoen, bertan maila guztietakoak geunden eta baita profesionalak ere. Hoteleko egonaldia izan zen esperientzia hoberenetakoa, bertan pertsonaia ugari ezagutu eta beraiekin berriketan aritzeko aukera izan bainuen, horien artean: Eusebio Unzueta eta Etxebarri Banestoko zuzendariarekin, Periko Delgado, Carlos de Andres eta Benito Urraburu kazetariekin eta hainbat profesionalarekin, horien artean, Espainiako itzulua irabazi berri duen Aitor Gonzalezekin. Tipo jatorra; txikitari Zumaiaiko hondartzan bainatu zela kontatu zidan.

Honela bada, lasterketa eguna iritsi zen, gau hartan ezin izan nuen lo askorik egin, urduritasuna zela eta. Selektzionatzaileak karrera honela planteatu zigun: taldeko lidertza Rojas murtziarrek hartu zuen, Italian sprintean etapa bat irabazi zuen eta bertan ere sprintean iritsiz gero irabazteko aukera handiak zituen, gainontzeko guztiei ihesaldietan egoteko agindua eman zigun gure aukerak jokatzu, baina azkenengo bi itzulietan pelotoian joanez gero Rojasentzako lana egin beharra zegoela, pelotoitiek tiratuz edo berari aurrean kolokatzen lagunduz. Guztiok esandakoa

Lan bikaina egin
nuela esan zidan
selektzionatzaileak
eta oso
esperientzia
polita bizi izan dut

onartu genuen, Rojasekin konfiatzen baikenuen.

Irteerara iritsi ginenean, hura ikaragarria iruditu zitzaigun, han zegoen jendetza eta montajea zela eta. Lasterketa hasi orduko erorketak ere hasi ziren, beraz aurrean ibili beharra zegoen lasterketak zituen 130 km-etan. Zirkuitua ez nuen oso gustukoa, aukeran aldapa gutxitxo baitzituen, baina bestalde, errebuelta asko zituenez, gustura nenbilen.

Lasterketa guztian 30 aurrenetan ondo kolokatuta ibili nintzen, selektzionatzaileak esanda bezala ihesaldietan sartzen saiatuz. Honela, seigarren buelta hasi orduko, (dena hamar ziren) hamarreko ihesaldi batean sartu nintzen, hura zen modu bakarra nire aukerak jokatzeko lasterketa amaitzen ari baitzen eta pelotoian jarraituz gero laster lanean hasi beharko bainuen Rojasentzat. Ihesaldian oso gustura

nihoan errelebotan pasatuz, horrela iritsita zerbait dexentea egiteko aukerak bainezkan, baina ez zen posible izan, minutu erdi baino gehiago ez baikenuen ateratzen. Ihesaldiak azkenengo itzulira arte iraun zuen, hala ere, pelotoiak harrapatu gintuenean, tiratzen jarri nintzen eta bat-batean, errebuelta batean, nire atzeko erori eta lasterketa buruan bakarrik geratu nintzen pare bat kilometrotan, baina alferrik, pelotoia gainean zetorren eta berehala harrapatu ninduten.

Jada 8 kilometro bakarrik geratzen ziren eta nituen indar apurrak pelotoitiek tiraka gastatu nituen. Bat-batean, pelotoiaren erdialdean nihoala erorketa bat izan zen 5 km falta zirela eta ni ere erori egin nintzen. Zutitu nintzenerako berandu zen eta lasai-lasai bueltatu nintzen helmugara beste hiru txirindulariekin.

Zoritxarrez, sei laguneko ihesaldia iritsi zen helmugara eta frantsesak irabazi zuen. Ihesaldi horretan ezin izan zuten sartu nire taldekideek.

Erorketak zauri arinak bakarrik eragin zizkidan, eta azkenengo bueltan erortzeagatik tristura puntu bat nuen arren, oso gustura bueltatu nintzen etxera, lan bikaina egin nuela esan baitzidan selektzionatzaileak eta oso esperientzia polita bizi izan nuelako.



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



TXERRIAK NOLA HILTZEN ZIREN

Azaroaren 11an San Martin eguna ospatzen da, hori dela-eta, San Migeleko baserri batera joan gara txerriak nola hiltzen ziren jakitera. Torre baserrian egon ginen 88 urteko Emilikin eta Belenekin, bere errainarekin, berriketan.

28 zortzi urtekin joan zen Emili San Migelera, Torre baserrira. Garai haietan hamahiru lagun bizi izan baziren ere, orain bost lagun daude.

Karnizerua etzan baiña beti zeon baserriyan karnizeru lanetan ibiltzen zana. Oain "Txortena" Jose Mai karnizerua etortzen da, sapatu arratsaldian etortzen da, hurrengo egunian etortzen da txikitzea.

Txerritegitik atea ta geo gantxua sartzen ziten okotzen azpiyan, okotzen azpitik lau lagunen artian makila-eo botatzen zuten aulki baten

danak garbitzen ttuen, ta danak garbitzen ttuenian ba preparatzen olkiyan masa ta olkiyak itten hasten, baiña horretako ein behar da: tipulak txikiu, porruk txikiu ta dana naha-nahasi, hayek biun-biun in arte, ta biun-biun itten zianian ordun odolai bota, ta geo gatza ta hestietan sartu ta hestietan sartzen zittuenean ur berotan sartu, hortxe sei bat minututan-eo, irakiten hasten zanian atea, hoixe zan txarriyan lana.

Olkiyak odolakin ta txoizua aparte, txoizua urdaiazpiko urdayakin nahastuta.

Xolomua gazitu eitten zan, gazitu geo kendu gatza, piper gorriakin masa ta dena gorri-gorri. Gazitutako xolomua goxua izaten zan.



gaiñian, han errenditzen zanian kutxillua sartu, odola atea ta geo odola ateatzen ai zanak odola ez gortzeko erain eitten zion esku batekin, odola dana gortu arte, sukaldean jarrita ere denbora askuan erainka-erainka eukitzen zuen.

Geo odola atea ta txarriya hiltzen zanian erre eitten, lastuakin-eo garuakin-eo, erre ta hua lehortzen zanian ba jartzen ohol baten gaiñian-eo, ta dana garbitzen zan, erretako dana kentzen, urakin dana garbitu, urakin garbitzen zuenian, tripak ateatzen zizkieten ta tripak ateatzen zizkionian danak garbitzen ittuen, hestiak apartau ta hesti

Oain txikitu ta dena konjeladorera sartzen da, baiña ordun urdaiya eiten zan gazitu, hilabetian-eo gazi-kutxan, hura ikusteko txulo bat, noizen behin beittu ta han egoten zan. Hasieran era batian jarri ta gero beste aldera buelta. Gatza bota, pixua jarri gaiñian, harriya-eo. Baiña orain ez da ondo konserbatzen, nola egualdi berua eoten dan, ez da konserbatzen, horregatik eitten degu orain konjeladorian sartu. Oain dana txikiu ta kongeladorera.

Azkazalak ez beste dana jaten da. Goxuena txerriyan buztana babarrunetan egosita.



- Material guztietako leihoak: PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Txerri hankak ere goxuak dia. Txerri hankak egosi, jateko modun egosi, kendu hezurak, iriñatan pasa, arrautzetan pasa ta prejiu (albardau ta prejiu), earrak.

Noiz

Gabonak baiño zortzi bat egun lenuo, Gabonetako txerri txuletak ta dena izateko.

Txerriya nola zeon ikusten zan eta egualdiya frexkatzen hasten zanian ordun hiltzen zian txarriyak. Gerra denbuan goizo (goizeko bostetan-eo) inor ez konturatzeko, bestela kia baldin bazan: "hi, etxe hartan zeoze... txerriya hiltzen aittuk" nabarmena gelditzen zan. Erre iten zan txerriya geo urdaiya gogorraga izateko esaten zuen. Horixe esaten zan ba ta, esandakuak guk ikasi genun da.

Oain Kandelaya baino lenuo, enero febreruan. Egualdiya berotu baiño len.

Elikatu

Txerri bakarra hazten zan, Karakas baserritik erosi, beak eukitzen zitunian txarrikumiak ta handik ekartzen.

Astuai otarra bizkar gaiñian jarri, txerrikumea sakuan sartu, otarran sartu ta muturra lotu. Oin berak beretzeko ekartzen dunian guretza-ko re bai.

Orduan ematen zitzaion alia jateko, artua, baba..., garai batian kalabaza; kalabaza egosi zayakin batera nastu. Baita ontziari botatzen zitzaion koipearekin ta sobratzen zanakin, arto-iriña nastu. Oain dena harraskatik bera juten dia. Oain berriz ogiya, ogiya dabil bolada hon-tan, patata azala-eo, azaa-eo...

Elkartruke

Saldu ez, len baserriyeta eman, bertan meriendatu; naranjak, galletak ta arin-arin etxera ta geo beayek hiltzen zitunian zuri ekartzen zizkizun bueltan. Oin ez do holakoik.

Kontakizunak

Bazian ihes indako txerriyak, hiltzen hasi ta ihes indakuak, ez dakit ze baserritan ihes indakua, kutxillua sartu ta kutxillo ta guzti. Guri hala esaten zizkiguten, gezurrak igual izango zian, ez dakit. Bertsuak ere badia, oain ere kantatzen ittue. Gezurra eo egia? Ze izango zian, ez dakit ze izango zian.

Xolomu earrena beterinariyuari ematen zitzaion, analisiya eitteko. Neri iruditzen zait beste pusketa bat emanda're igual-igual zeola analisatzia, baina onena, goxuena ematen zitzaion, gauzak hola funtzionatzen zun. Analisiya itteko pusketa txikiyakin nahikua zan, baina beak eskatzen zun ta.

ESAERA ZAHARRAK

Gotzon Garateren Atsotitzak (1988) liburutik San Martin eguneko eta txerriei buruzko esaera zahar batzuk bildu ditugu:

- " Zerri guztixeri eltzen jaken San Martin egune [Txarri]"
- " Zerritik dena ona, muturretik buztanera"
- " Zerri txarra, dena ile"
- " Negu ona irteteko, San Martinetako iru aldiz elurre in behar du"
- " Gaur zerria agindu, bihar odolkia ukatu"
- " Arbuiatzen duzu zerri izena, maite dezu aren gizena"
- " Norata ezkurra, harata xerrien muturra"

dekorazioa



ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

 696 726188
943 143261

Alberdi



Gizonezkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

INMOBILIARIA



Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

ileapaindegia



I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 943 862083



LEIZE

taberna

Juan Belmonte, 6



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

JOUSILOULI "Terrorista"



Mikel Jousi: "Gaur egun sortu den kliman edozer gauzogatik har zaitzakete terroristatzat; badirudi laister larrua jotzeagatik ere kartzelara eramango gaituztela."

Jousilouli-k, hip-hop-a eta metala nahasten dituen talde Lezoarra, azaroaren 20rako kaleratuko du bere disko berria. "Terrorista" azken lan hau GOR disketexearekin aterako duten bigarrena izango da.

Baleikekook Jousilouli taldeko abeslari Matxet eta Mikel Jousi kitarrajolearekin diskoaz hitz egiteko parada izan genuen. Hona hemen emaitza!

"Prest" estreineko diskoaren ondoren "Terrorista". Zer transmititu nahi duzue disko berri honekin?

MATXET: gaur egun denok garelako terroristak; kaka ere ezin da egin.

MIKEL JOUSI: sortu den kliman edozer gauzogatik har zaitzakete terroristatzat; badirudi laister larrua jotzeagatik ere kartzelara eramango gaituztela. Diskoaren ideia ildo hortatik doa, horregatik izenburu hau.

MATXET: diskoaren portadak Mikel-ek esanikoa isladatzen du: bertan Kamasutrako argazki bat ateratzen da, non bikote bat larrua jotzen ari den buruan buru-beroki bat dutela.

Kantu guztiak ildo beretik al doaz?

MATXET: bai, gaia gutxi gorabehera hori da, hala ere sexuaz asko hitz egiten dugu, baita eguneroko arazoetaz ere.

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853


Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



ZE AITUA



Kantuen artean, "ikastola maite dut" abestia. Zer dela eta kantu hau?

MIKEL JOUSI: hori Matxet-en trauma bat da, esango dizue zergatik.

MATXET: Mikelek dioen bezela ikastolan bizitako trauma bat izan zen. Bi neskek pubertaroa izorratu zidaten, eta alde hortatik gogoia nuen kantua egiteko. Ez da txandal-metal ume pijo belurtuaren trauma, baina benoa.

"Bertako taldeek pertsonalitate gehiago dute, originalagoak dira"

Nahasketak bukatzen ari zareten honetan, espero zenuten emaitza gauzatu al da?

MIKEL JOUSI: egia esan oso gustura gaude. Aurreko astean estudiantiotik atera ginenean ez geunden hain itxaropentsu; orain, berriz, lana bukatuta oso gustura gaude.

MATXET: beti ere marjen bat utzi behar da, baino benoa, orokorrean oso pozik, bai.

Nola joan da grabaketa saioa?

MIKEL JOUSI: guretzat grabatzea okerrean den arren, izan ditugun kolaborazioei esker izugarri ondo pasa dugu.

Bai, orain egin behar genuen kolaborazioen aipua. Nolako izan da Drogas, Aitor Gorosabel eta Gorka Urbizuren ondoko grabatzearen esperientzia?



AUTO-ESKOLA

ZUMAIÀ

- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

7 MARES

Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

MIKEL JOUSI: horrelako esperientziekin ikasten duzuna zera da, badagoela 30 disko kaleratu dituztenak eta beraiekin komunera "elkarri zurrupatzera" gonbidatzen zaituztenak, eta badagoela beste sektore bat disko bakarrarekin sorbalda gainetik begiratzen dutenak.

MATXET: ez dakit zergatik izan den, gure musika gustatu izan zaielako edo, baina elkarrizketatan ere laudorioak jaso ditugu eta gu alde hortatik oso eskerturik gaude.

MIKEL JOUSI: Drogas-ek adibidez Madrilgo mass-mediatan, "que tal está el asunto por el norte?" bezalako galdera bat erantzuteko orduan: "Jousilouli".

MATXET: mesede bat bueltatzea bezala izan da, beti nahi izan dugun arren horrelako zerbait egitea. Izan ere, nahiz eta alde hau edo hura gustuko izan, denok hezi izan gara Barricada edota Su ta Gar bezalako taldeekin. Ilusio handia egiten zigun.

"Prest"-ek bete ahal zituen zuen espektatibak, bai soinu nola jendearen harrerari dagokionez?

MIKEL JOUSI: lehen diskoa izanik eta gazteak izanda ez dut uste gauza asko eskatu zitekeenik, baina momentu hartan egin genuen lanaz oso oroitzapen onak ditut.

MATXET: denboraren poderioz akatsak beti aurkitzen dira, baina ni behintzat oso gustora nago egin ditugun gauza guztietaz. Gauza bakoitzak bere momentuak ditu.

Eta jendea?

MATXET: hasierak beti izaten dira gogorak batez ere guk lantzen dugun musika estiloa ezezaguna izanik Euskal Herrian. Lehen edozein tokitara jotzera joan eta lau katu besterik ez zeuden; gaur, aldiz, jende pila batekin aurkitzen gara.

MIKEL JOUSI: bai, aldea izugarria da, eta hor ikusten dugu jendeari gure proposamena gustatzen zaiola!

Zer eskaintzen du "Terroristak" "Prest"-ekiko, eta jendearen ze harrera espero duzue?

MATXET: denetik eskeintzen du, ja-ja. Esan dezakedana zera da, lehen diskoa gustatu zitzaion jendearentzat sorpresaz beteriko lan bat dela, aldaketa ugari dituen, bai ahotsetan, sinteetan, ambienteetan... oso desberdina da. Hala ere igartzen da gu garela!

MIKEL JOUSI: entsegura disko honen riff berriak eraman nituenean, baju eta teklatuekin probatzen hasi bezain pronto bagenekien disko berri honek Jousilouli-n gauza asko aldatuko zituela. Orain, diskoa amaitu eta gero, berdin pentsatzen jarraitzen dut. Jendearen harrera? Egia esan ez dakigu. Hori bai, disko hau Jousilouli a lo bestia da, bai gauza onetan baita txarretan ere!!

Bateria berriaren influentzia nabaritu al da?

MIKEL JOUSI: Gauza azkarragoak egi-



<p><i>Arkupe</i></p>  <p><i>Okindegia eta gosariak</i></p> <p>Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521</p>	<p>ad</p> <p>AUTOS ZUMAIA</p> <p>Urola plaza 3-5 Tel: 943 86 14 85</p>
--	--



tea ahalbidetu digu, adibidez, James Brown-en funk bat egiteko edo jungle zatiak sartzeko... eta hau seguru asko beste baterijole-arekin ez zen posible izango.

MATXET: garrantzitsua izandu da, dudarik gabe!

Duela hilabete gutxi Soulfly-ekin jo zenuten Bergarako Jam Aretoan, nola sortu zen aukera hau? Nola bizi izan zenuten egun hori?

MATXET: hasiera batean Valentzian zenbait kontzertu ematekotan ginen, baina guztiak doakoak zirenez, dirua aurreztu beharra genuen. Aukera honen berri jakin genuenean ez genuen bitan pentsatu. Gainera aspaldidanik genuen horrelako talde potente batekin jotzeko gogoia.

Soufly eta Jousilouli kartel berebean: ez al dira estilo diferenteak?

MIKEL JOUSI: jendearen jarrera harridurazkoa izan zen! Nire ustez Euskal Herrian ez dago Soufly-ren estiloa lantzen duen talderik, eta izatekotan ez dira horren ezagunak.

MATXET: akaso estiloa ez da horren antzekoa izango, baino argi dagoena da guk Soufly-ren influentzia pila bat jaso dugula.

Kontzertua hasi bezain pronto, Mikel, errebista baten portada hautsi zenuen, ordurako emanaldi guztian egon zinen bezala, biluzik zinen. Ze argazki puskatu zenuen?

MIKEL JOUSI: Rob Halford-en argazki bat zen. Eszenatokira igotzekotan ginen eta ordurako biluzik nintzen; errebista ikustean, ez dakit zergatik, hartu egin nuen. Ez zegoen prestatua, eta gauza aurrera zihoan heinean puskatu egin nuen. Ez nuen Judas Priest iraindu nahi.

Diskoa amaitu berri duzue, eta orain zer?

MATXET: kontzertuak jo. Gogotsu gaude, izan ere denbora dexente daramagu jo gabe. Diskoaren lehen aurkezpena hilaren 14an Bilboko Kafe Antzokian izango da nahiz eta diskoaren argitalpena agian beranduago izango den.

MIKEL JOUSI: asako, gogo handia dugu kontzertuak emateko!



ZOZKETA

Bestalde, Jousilouli taldearen bi disko ditugu zozketatzeko. Diskoren bat nahi baduzue honako galdera hau erantzun beharko duzue: zenbat eta zeintzuk dira talde Lezotarreko kideak? Erantzunak baleike@topagunea.com helbide elektronikora bidali abenduaren 6a baino lehen.

Diskoren bat gomendatu behar bazenute...

MIKEL JOUSI: John Coltrane-n "Love Supreme"

MATXET: Necro "I need drugs"

Nola ikusten duzue Euskal Herriko rocka?

MIKEL JOUSI: egin diezaiokegun kritika bakarra metalean oinarrituegia dagoela da. Espainia mailan aurkitu daiteken egoerarekin alderatuz, berriz, hemengo mugimenduak mila buelta ematen dizkio. Hemen jendeak musika ezagutza handiagoa du. Hau diferentea da.

MATXET: Espainian ez dago maila handiegirik egia esan, hemengo edozein talde ezagunek adibidez Madril eta Bartzelonako salak betetzen dituzte. Bertako taldeek pertsonalitate gehiago dute, originalagoak dira, batez ere metalaren eremuan.

Amaitzeko, Zumaiako herriari bi hitz...

MATXET: Politza da!

MIKEL JOUSI: Gustatzen zait!

ERAKUSKETAK

- Azaroaren 22tik abenduaren 1era, Alondeggi Zaharrean, Bertso-eskolako erakusketa: "ZUMAIKO BERTSO-ESKOLA, 20 URTE KANTARI".
- Azaroaren 27tik 30era, Ludotekan, JOSTAILUEN ERAKUSKETA.
- Abenduaren 6tik urtarrilaren 6ra, Alondeggi Zaharrean, GIPUZKOAKO JAIOTZEN ELKARTEAREN erakusketa.

BESTELAKOAK

- 21, osteguna: 22:15etan zine-forum saioa "GHOST WORLD" (Terry Zwigoff).
- 18-22: Santa Zezilia ospatzeko, aste osoan zehar Musika Eskolan AUDIZIOAK.
- 22, ostirala: Santa Zezilia eguna, S. PEDRO ABESBATZAKO KONTZERTUA, arratsaldeko 19:30etan.



- 23, larunbata: IRTEERA, Mirandaola-Itzartubeiti baserrira. Izen ematea Foronda kultur Etxean (943861056) eta Turismo Bulegoan (943143396), azaroaren 11etik 20ra.
- 24, igandea: Santa Zeziliako ospakizunekin jarraitzeko herriko BANDAREN KONTZERTUA, eguerdiko 12:30etan.
- 24, igandea: Santa Zeziliako ospakizunekin jarraitzeko herriko BANDAREN KONTZERTUA, eguerdiko 12:30etan.
- Abenduak 5, osteguna: 22:15etan zine-forum saioa "EL PABELLÓN DE LOS OFICIALES"
- Abenduak 19, osteguna: 22:15etan zine-forum saioa "EN TIERRA DE NADIE"

* Liburutegiko inaugurazioa dela-eta zenbait ekitaldi desberdin izango dira (ikus programa).

V. BERTSOPAPER-LEHIAKETA

Joanito Dorronsoro saria

OINARRIAK

1. Lehiaketa honetan edozein zumaiarrek har dezake parte.
2. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez lan bakarra aurkez dezake eta gaia honakoa izango da:

ZUMAIAREN ETORKIZUNA:

- Nolakoa izango dela uste duzu?
- Nolakoa izatea gustatuko litzaizuke?
- 3. Bi kategoria bereizten dira: gaztetxoena (18 urte bitartekoak) eta helduena (18 urtetik gorakoak).

4. Gaztetxoek 4 eta 8 bertso bitartean egin beharko dituzte. Helduek, berriz, gutxienez 6 bertso egin beharko dira eta gehienez 10. Doinua eta neurria norberak nahituena izango dira.
5. Lanak idazmakina edo ordenagailuz idatzita aurkeztu beharko dira, orriaren alde bakarretik idatzita.
6. Lanak Foronda kultur etxean aurkeztu beharko dira, 2002ko abenduaren 27a baino lehen.
7. Lanak egilea nor den adieraz lezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztuko dira. Lanarekin batera gutunazal itxi batean parte-hartzailearen datu pertsonalak eta telefonoa adieraziko dira. Gutunazalaren gainean eta lanaren hasieran ezizen bat jarri beharko da.
8. Epaimahaia hala erabakiko balu, behean aipatutako sariak emateaz gain aipamen berezi bat edo batzuk egin ahal izango dira.
9. Saritutako eta saritu gabeko bertsoak argitaratzeko eskubidea izango du Zumaiko Bertso Eskolak, beste argitalpen baten barruan nahiz argitalpen berezi batean.
10. Sariak 2003ko urtarrilaren 3an Anade elkartearen egingo den bertso-afarian jakinarazi eta banatuko dira.

SARIAK

Gaztetxoetan:

1. saria: Txapela, oparia eta 50 euro
2. saria: Oparia eta 30 euro

Helduetan:

1. saria: Txapela, oroigarria eta 200 euro
2. saria: Oroigarria eta 125 euro

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 943 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



Baselari Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAILA

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maité
ileapaindegia

ekin INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ELEKTRIZITATEA, S.L. TELEKOMUNIKAZIOAK

Erribera kidea 18 Behe Tlf/Fax: 943 143097
20.750 Zumaiak ekin@ekinad.com

Estalatzailu/banatzailu ofiziala



ert
informatika

tresna digi
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



Larunbat arratsaldetan irekita!!

Ardantzabide Altzariak

Sukaldeak
Egongelak
Era guztietako logelak
Mahaiak
Ateak
Leihoak
Horma armairuak
Tarimak
Era guztietako arotz lanak

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia
Tel./Faxa: **943 86 25 32**
TAILERRA: Santixo auzoa40



Casa BASUSTA



CASA
BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zuznezko saskiak

Etchez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611

